



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA
2016/04/07

Batzar Nagusiek eskaerea egin deutsie Gobernu zentralari, emakumezkoentzako higiene produktuen eta fardelen BEZa murriztu daian

Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaerea egingo deutsie Gobernu zentralari, emakumezkoentzako higienara bideratutako produktuen eta fardelen BEZa murriztu daian. Podemos Bizkaiak aurkeztu dauen eta abstenidu egin diran PP taldearen eta Talde Mistoarenak izan ezik Bizkaiko Batzarretako ganerako talde guztien aldeko botoa jaso dauen arauz besteko proposamenak, artikulua horreei %4ko BEZ “supermurriztua” apliketako “eskaria egiten dau”.

Asun Merinero Podemos Bizkaia taldeko ordezkariak adierazo dauenez, Gobernu zentralaren eretxiz produktu horreek “funtsezkoak ez diran” arren, benetan funtsezkoak dira. Hori oinarritzeko, talde moreko batzordekideak esan dau emakumeek 35 urte ingurutan erabilten dituela “hilerorako tanpoiak, konpresak edo kopak”, eta hori dala eta, ez dauela ulertzen artikulua horreek %10eko BEZa izatea, ogiak, botikek edo liburuek daben %4koa izan beharrean. Fardelen kasuan “aldea nabarmenagoa da oraindino”, une honetan zerga horren tiporik altuena, %21ekoa, jasaten dabelako.

Emakumezkoentzako higiene produktuei jagokenez, Javier Ruiz PPko bozeroaleak Rajoyren gobernuak 2012. urtean ezarri eban jatsierea defendidu dau, Balio Erantsiaren Zergea hamaika puntu murriztu ebalako, “%21etik %10era pasau zan”. Fardelei jagokenez, EBren Arteztarau batek ez dituala “funtsezko” produktuen zerrendan sartzen esan dau.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek euren adostasuna erakutsi dabe murrizketa horren aurrean, baina eskaria egin deutsie Podemos taldeari, aldaketa horreek Europako Legebiltzarrean eta Kongresuan aurkeztu daizan, Euskadiko erakundeek ez dabelako BEZa ezarteko eskumenik, zerga harmonizaua dalako.

EH Bilduk, bere aldetik, ekimena “polita baina hutsala” dala esan dau, Bizkaiak ez dauelako tributuen eskumen hori. Podemos taldeak bere konpromisoa agertu dau eskari hori Bruselan eta Madrilen aurkezteko, leku horietan dituan taldeen bitartez.

KATASTROA ETA OGZ

José María Iruarrizaga Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak hasiera emon deutso Batzar Nagusietan Katastroaren eta OGZren Foru Arau proiektuen izapideari. Orain urtebete baino apur bat gehiago onartu zan Batzarretako araudi barriaren 115.1.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

artikuluak jasoten eta batzordeko eztabaidaren aurretik emon beharreko pausua da, Jon Andoni Atutxa batzordeko presidentea azaldu dauenez.

Foru diputatuak azaldu dauenez, bi arau proiektu horreek “paraleloan” doaz, eta udalek zerga batzuk ezarteko erabilten dituen legezko tresnak dira. Horrela, udalerriek higiezin baten balio katastrala eskatzen dabe gero jagokon udal zergea apliketako. Proiektu biak alkarregaz doaz Batzarretan, eta aldi berean, 112 udalerrietan dagozan higiezin guztien balioa zehaztu behar dituen “balioen ponentziak” be amaituz doaz. Kontuan izan behar da hori ez dala aldatu 25 urtetan. Iruarrizagak esan dauenez, “aldeak” egongo dira gaur egun ordaintzen danaren eta etorkizunean ordainduko danaren artean. “Uste dot batzuek gora egingo dabela eta beste batzuek, barriz, behera”, esan dau.

IRUZUR FISKALA

Bere agerraldian, Iruarrizagak iruzur fiskalaren kontrako Burruka Planaren barruan joan dan urtean aurrera eroan diran emaitzen eta jarduketan barri emon deutse batzarretako taldeei. Jarduketa horreek dirala eta, 2015. ekitaldian “446,7 milioi” azaleratu ziran. Benetan jasotako diruaren ganeko galderari erantzunez, “%70” inguru berreskuratuko dala uste dauela esan dau diputatuak.

Iruarrizagak onartu dau aurkitu dan dirua aurreko ekitaldietan baino gitxiago dala, baina hori aurreko ekitaldietako kasu “puntualak” dirala eta azaldu dau, kasu puntual horreetan diru kopuru handiak azaleratu ziralako. Bizkaiko Foru Ogasuneko Ikuskaritza organuen jarduketek, barriz, gora egin dabe, igaz “5.767 jarduketa gauzatu ebezalako, 2014an baino %19 gehiago”.

Diputatuak azaldu dauenez, 2015ean “80 milioi” datu trukau ziran Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako Ogasunakaz eta Tributuen Administrazinoko Estaduko Agentziagaz. Azken horregaz “68,5 milioi” izan ziran. Eta Notariotzaren Kontseilu Orokorretik, ohikoenak diran eragiketa juridikoen ganeko “186.000 dokumentu baino gehiago” jaso ziran.

Ganera, Ogasun eta Finantza Sailak “417 auditoria informatiko egin ebazan eta IFZ kendu eutsen 29 soziedaderi”. Horreetatik, “epaileen 4 baimen” lortu ebazan, enpresa barruan jardun ahal izateko.

Igaz, Ogasun Publikoaren kontrako delituengaitiko “zigorrezko bost epai” finko bilakatu ziran. Horreen zenbatekoa “4,3 milioi euro baino gehiagokoa da”, eta “3,2 milioi euro baino pixka bat gehiagoko” beste epai batzuk gauzatu ziran. Horreek guztiek eragin dituen kartzelaratzeko zigorrak, guztira, “20 urtera” heltzen dira.

Iruarrizagak azaldu dauenez, 2015. urteko kopuruak “oso garrantzitsuak” dira, eta Bizkaiko Ogasuneko kideen “etenik bako” beharrari esker berreskuratuko ahal izan dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

HKEE-TVCP-REN TXOSTENA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak San Mames Barria S.L.-ren fiskalizazio-lanaren ostean argitaratu dauden txostenaren ganeko azalpenak emon daizan eta horren balorazioa egin daian EH Bilduk eskatutako agerraldia dala eta, Iruarrizagak txosten “garbia” dala adierazo dau. Epaitegiak bere ondorioetan adierazoten dauenez, Athletic Club taldearen zelaia eregitako ardura izan dauden soziedadeak “legedia modu errazoituan bete dau”, eta zazpi urte hartzen dituan ikertutako epealdian irregulartasun “txikiak” baino ez ditu izan.

Iruarrizagak adierazo dauenez, Kontseiluko kide “guztiak” (Aldundia, Eusko Jaurlaritzak, BBK, Bilboko Udala eta Athletic Club) “nahiko pozik” dagoz txostenagaz, epaitegi fiskalizatzaileak zazpi urtetan adierazo dituan “legez kanpoko hiru aitamenak” hor dagozan arren. Esan behar da Soziedadeko kontseilua “ez egoala horreekaz ados”. Unai Lerma jeltzaleak gero adierazo dauenez, aitamen horreek “880.000 eurotan” dabe eragina, eta kontratu publikoak “96 milioi eurokoak” izan ziran.

Erabili ahal izateko kanon moduan Athletic Club taldeak ordaintzen dituan 500.000 euroengaitik galdetuta, esan dau ez dagoala aurreikusita prezio hori barrikustea programautako epea amaitu aurretik, eta gogoratu dau kanon hori estaduko taldeen artetik “altuena” dala, eta bigarrena “180.000 eurokoa” dala.

BEHARGIN BATEN SALAKETEA

Beste alde batetik, Iruarrizagak esan dauenez, Bizkaiko Ogasunak “ez dau ezagutzen” ikuskatzaile batek aurkeztu dauden salaketaren eukia. Salaketa horretan, antza, Bizkaiko Ogasunak zergadun jakin batzuen aldeko mesedekeriak erakutsi dituela esaten da, eta zehatzago esanez, “txatarraren sektoreko zazpi enpresaren” alde, diputatuak berak geroago argitu dauenez.

Iruarrizagak azaldu dauenez, joan dan zezeilaren 23an Fiskaltzak enpresa horreen ganeko 2010etik aurrerako informazio fiskala eskatu eutsan Ogasunari, “idazkian salaketea aitatu barik”, eta Bizkaiko Ogasuneko “inori” zuzendutako ikerketak zabaldu dituanik adierazo barik, diputatuak esan dauenez.

Ogasuneko arduradunak baieztu dauenez, Aldundiak Fiskaltzan entregau ebazan Luis Suárez ikuskatzaileak 2015eko zemendiaren 25ean “15 lankideren” irregulartasun posibleen ganean Ogasunean aurkeztu eban idazkia, eta behargin horrek “adierazotako argumentu guztiei eta bakotxari” kontra egiten eutsan garagarrilaren 18ko txostena.

Txosten horretan, laburbilduta, enpresa horreek guztiek “15 ikuskatzailearen aldetik hainbat unetan” ikuskapena izan dabela jasoten da, 2010. urtetik aurrera, eta horrek



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

“fiskaltzaren aurreko 4 salaketa” eta “zigorrezko epaiak” eragin dituela. Enpresa horreetako batek “zigor prozesu bi” ditu.

Iruarrizagak esan dauenez, bere saileko kideen jarduketak “ohikoak diran araudira eta prozeduretara egokitzen dira”, eta Fiskaltzak hasten dituan ikerketa guztiei laguntzen jarraituko dauela Ogasunak. Salaketea jarri dauen beharginaren kontrako legezko neurririk hartuko dan ala ez galdetuta, prozesua bukatzen danean “zer egin ikusiko dugula” esan dau Iruarrizagak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

07/04/2016

Juntas Generales insta al Gobierno central a reducir el IVA en los productos de higiene femenina y en los pañales

Las Juntas Generales de Bizkaia pedirán al Gobierno central que rebaje el IVA tanto de los artículos destinados a la higiene femenina como a los pañales. Una proposición no de norma presentada por Podemos Bizkaia y apoyada por todos los grupos junteros de la Cámara vizcaína, a excepción de PP y grupo Mixto que se han abstenido, “insta” a que se aplique en estos artículos el IVA “superreducido” del 4%.

La representante de Podemos Bizkaia Asun Merinero ha mantenido que estos productos, que el Gobierno central “no considera de primera necesidad”, deberían de tener tal consideración. En su justificación, la apoderada de la formación morada ha argumentado que las mujeres usan una media de 35 años “tampones, compresas o copas menstruales” por lo que no entiende que estos artículos tengan un IVA del 10 en lugar del 4 como se aplica al pan, los medicamentos o los libros. En el caso de los pañales, es “aún más llamativa la diferencia”, pues actualmente soportan el tipo máximo de este impuesto, el 21%.

En relación a los productos de higiene femenina, el portavoz del PP, Javier Ruiz, ha defendido la rebaja que ya aplicó el Gobierno de Rajoy en el año 2012 al reducir once puntos el Impuesto del Valor Añadido, “de un 21% se pasó a un tipo del 10%”. En cuanto a los pañales, ha explicado que una directiva de la UE no los incluye en la lista de productos de “primera necesidad”.

PNV y PSE-EE han mostrado su conformidad con que se produzca tal rebaja, aunque han animado a Podemos a presentar estas modificaciones en el Parlamento Europeo y en el Congreso, ya que las instituciones vascas no tienen potestad para fijar el IVA por ser un impuesto armonizado. Podemos ha recogido el guante y se ha comprometido a presentar esta petición en Bruselas y Madrid a través de sus respectivos grupos parlamentarios.

Por su parte, EH Bildu ha calificado la iniciativa de un “brindis al sol” al carecer Bizkaia precisamente de esta competencia fiscal.

CATASTRO E IBI

Por su parte, el diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha dado el pistoletazo de salida en Juntas Generales al trámite de los proyectos de Norma Foral de Catastro e IBI, compareciendo a título informativo como paso previo al debate en comisión que se recoge en el artículo 115.1 del nuevo reglamento de la Cámara



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

aprobado hace poco más de un año, según ha explicado el presidente de la comisión, Jon Andoni Atutxa.

El diputado foral ha explicado que estos dos proyectos de norma van “en paralelo” y son instrumentos legales que los ayuntamientos utilizan para establecer algunos impuestos. Así, los municipios requieren el valor catastral de un inmueble para aplicar luego el correspondiente impuesto municipal. Ambos proyectos caminan en Juntas al tiempo que van finalizando las “ponencias de valores” que deben determinar el valor de todos los inmuebles en los 112 ayuntamientos, algo que no ha cambiado en los últimos 25 años, según han criticado desde la oposición. Iruarrizaga ha señalado que va a ver “diferencias” entre lo que se paga ahora por IBI y a partir del año 2017. El objetivo es que ambas normas se puedan aplicar desde el 1 de enero. “Entiendo que unos subirán y otros bajarán”, ha dicho.

FRAUDE FISCAL

En su comparecencia, Iruarrizaga ha informado antes a los grupos junteros de los resultados y actuaciones desarrolladas el año pasado dentro del Plan de Lucha contra el fraude fiscal, que lograron aflorar “446,7 millones”. Preguntado por lo realmente ingresado, el diputado estima que se recuperará “un 70%”.

Iruarrizaga ha admitido que el dinero descubierto es inferior al de ejercicios anteriores, algo que lo achaca a casos “puntuales” en donde se descubrieron grandes sumas de dinero. Lo que sí ha experimentado un incremento son las actuaciones de los órganos de Inspección de la Hacienda Foral de Bizkaia que realizaron el año pasado “5.767 actuaciones, un 19% más que en 2014”.

El diputado ha explicado también que, a lo largo de 2015, se intercambiaron “80 millones” de datos con las Haciendas de Araba, Gipuzkoa, Navarra y la Agencia Estatal de la Administración Tributaria. Con esta última, fueron “68,5 millones”. Y se recibieron del Consejo General del Notariado “más de 186.000 documentos” referidos a las operaciones jurídicas más habituales.

El Departamento de Hacienda y Finanzas realizó además “417 auditorías informáticas y revocó el NIF a 29 sociedades”. De estas, consiguió “4 autorizaciones judiciales” para actuar dentro de las empresas.

El año pasado adquirieron firmeza “cinco sentencias condenatorias” por delitos contra la Hacienda Pública por importe de “más de 4,3 millones de euros” y se ejecutaron otras sentencias por “algo más de 3,2 millones de euros” que han supuesto penas de prisión que suman “20 años”.

Iruarrizaga ha explicado que las de 2015 son cifras “muy importantes”, consecuencia de un trabajo “continuo” de los miembros de la Hacienda vizcaína.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

INFORME DEL TVCP SOBRE SAN MAMES BARRIA

A instancias de EH Bildu que había pedido su presencia en el Parlamento vizcaíno buscando la opinión de la Diputación en relación al informe de fiscalización del TVCP sobre San Mames Barria, Iruarrizaga ha señalado que este es un informe “limpio”. El tribunal concluye que la sociedad encargada de construir el campo del Athletic ha “cumplido razonablemente la legalidad” incurriendo en tres irregularidades que para él son “minimas” en un periodo investigado "largo" que alcanza los siete años.

Iruarrizaga ha manifestado que “todos” los miembros del Consejo (Diputación, Gobierno Vasco, BBK, Ayuntamiento de Bilbao y Athletic) están “razonablemente satisfechos” con el informe, pese a los “tres apuntes de legalidad” apuntados por el tribunal fiscalizador en este tiempo (2007-2014) y con los que el Consejo de la sociedad “no estaba de acuerdo”. Estas irregularidades vienen a sumar, según ha apuntado luego el jeltzale Unai Lerma, “880.000 euros” sobre “96 millones de euros” en contratos públicos.

Preguntado por los 500.000 euros que el Athletic paga como canon de uso, Iruarrizaga ha señalado que no está previsto revisar este precio antes de lo programado, y ha recordado que este canon es el “más alto” entre los clubs estatales ya que el segundo se sitúa en un alquiler de “apenas 180.000 euros”.

DENUNCIA DE UN TRABAJADOR

Por otra parte, Iruarrizaga ha señalado que la Hacienda de Bizkaia “desconoce” el contenido de la denuncia de un inspector que acusa al fisco vizcaíno supuestamente de tratos de favor a contribuyentes, en concreto a “siete empresas del sector de la chatarra”, según ha precisado después el propio diputado.

Iruarrizaga ha explicado que el pasado 23 de febrero la Fiscalía solicitó a la Hacienda vizcaína información fiscal sobre estas empresas desde el año 2010, “sin mencionar –en su escrito- la denuncia”, y sin especificar que haya abierto investigaciones dirigidas a “ningún miembro” del departamento que dirige, ha precisado.

El responsable de Hacienda ha confirmado que la Diputación entregó a la Fiscalía tanto el escrito que presentó el inspector Luis Suárez en Hacienda con fecha 25 noviembre de 2015 sobre posibles irregularidades de “15 compañeros” como un informe de la Diputación de 18 de julio que rebatía “todos y cada uno de los argumentos apuntados” por el trabajador.

En ese informe se incluye, en resumen, que todas las empresas han sido objeto de inspección por “15 inspectores en diferentes momentos” desde el año 2010, derivando



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

en “ 4 denuncias ante la fiscalía” y en “sentencias condenatorias”. Una de las empresas tiene “dos procesos penales”.

Iruarrizaga ha señalado que las actuaciones de los miembros de su departamento “se ajustan a la normativa y a los procedimientos habituales” y que Hacienda seguirá colaborando con cualquier investigación que inicie la Fiscalía. En relación a si adoptarán medidas legales contra el denunciante, Iruarrizaga ha dicho que “ya veremos lo que hacer” cuando el proceso finalice.